



UN ÁRBOL, UNA HISTORIA



I Concurso de Microrrelatos Bizi-Baso

Presentación

Fundación Ilundain y Granja Escuela Haritz Berri organizan el I Concurso de Microrrelatos «**Un árbol, una historia**», dirigido al alumnado de Educación Primaria.



El concurso busca fomentar la creatividad y acercar a los niños y niñas al conocimiento, el respeto y el cuidado de los árboles y de nuestro entorno natural.

El concurso se enmarca dentro del proyecto social y medioambiental Bizi-Baso, impulsado por Fundación Ilundain y Fundación Iberdrola España



Bases del concurso

1. Participantes

Podrá participar el alumnado de Educación Primaria a través de su centro escolar.

Cada alumno o alumna podrá presentar un único microrrelato, que deberá ser original e inédito.

2. Categorías

Se establecen dos categorías:

- **Primera categoría:** alumnado de 1.º, 2.º y 3.º de Educación Primaria.
- **Segunda categoría:** alumnado de 4.º, 5.º y 6.º de Educación Primaria.

3. Tema y comienzo del relato

El tema central y obligatorio del microrrelato será **los árboles**, que deberán ser protagonistas de la historia o tener un papel importante en ella.

Todos los relatos deberán comenzar con la siguiente frase:

«Todo comenzó el día que plantamos aquel árbol...»

A partir de esta frase, cada participante podrá desarrollar libremente una historia real o imaginaria.

4. Características de los relatos

Los microrrelatos deberán cumplir los siguientes requisitos:

- Tener una extensión máxima de **250 palabras**, incluido el inicio obligatorio.
- Incluir un título.
- Ser originales e inéditos.
- Estar escritos por el propio alumno o alumna.
- Podrán presentarse escritos a mano o a ordenador.
- Si están escritos a mano, deberán ser perfectamente legibles.
- Podrán redactarse en castellano o en euskera.

5. Presentación y envío

Los centros escolares se encargarán de recopilar y enviar los relatos de su alumnado.

Los textos deberán remitirse **escaneados en formato PDF** a la siguiente dirección de correo electrónico:

haritzberri@fundacion-ilundain.com

Los relatos deberán enviarse hasta el **21 de octubre incluido**. La resolución del concurso se comunicará a principios de diciembre.

Cada trabajo deberá incluir:

- Título del microrrelato.
- Nombre y apellidos del alumno o alumna.
- Curso y clase.
- Nombre del centro escolar.
- Nombre y datos de contacto del profesor o profesora

responsable.

6. Valoración

Un jurado designado por Fundación Ilundain y Granja Escuela Haritz Berri seleccionará un relato ganador en cada categoría.

El jurado valorará especialmente:

- La originalidad y la creatividad.
- La presencia y relevancia del árbol en la historia.
- La capacidad para transmitir emociones, valores o mensajes relacionados con el cuidado de la naturaleza.
- La inclusión de valores sociales como respeto, igualdad, compromiso...
- La adecuación del texto a la edad y al curso del participante.

7. Premios

Se concederá un premio en cada categoría.

Aunque el reconocimiento recaerá en el alumno o alumna que haya escrito el relato ganador, **el premio será para toda su clase.**

Las dos clases ganadoras disfrutarán de una jornada especial en la **Granja Escuela Haritz Berri de Fundación Ilundain**, donde podrán conocer el entorno natural y participar en una **plantación de árboles dentro del proyecto Bizi-Baso.**

La fecha de la visita se acordará posteriormente con cada centro escolar. El transporte a las instalaciones correrá a cargo del centro escolar.

8. Comunicación de los relatos ganadores

Fundación Ilundain comunicará el fallo del jurado a los centros escolares de los alumnos o alumnas premiados.

Los relatos ganadores podrán publicarse en la página web, las redes sociales y otros canales de comunicación de Fundación Ilundain, previa autorización correspondiente.





ZUHAITZ BAT, ISTORIO BAT



Bizi-Baso I. Mikrokontakizun Lehiaketa

Aurkezpena

Ilundain Fundazioak eta Haritz Berri Baserri Eskolak «Zuhaitz bat, istorio bat» I. Mikrokontakizun Lehiaketa antolatu dute, Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduta.



Lehiaketaren helburua da sormena sustatzea eta haurrei zuhaitzak eta gure ingurune naturala ezagutu, errespetatu eta zaintzearen garrantzia hurbiltzea.

Lehiaketa Bizi-Baso gizarte eta ingurumen-proiektuaren barruan kokatzen da. Proiektua Ilundain Fundazioak eta Iberdrola España Fundazioak sustatzen dute.



Lehiaketaren oinarriak

1. Parte-hartzaileak

Lehen Hezkuntzako ikasleek parte hartu ahal izango dute, beren ikastetxearen bidez.

Ikasle bakoitzak mikrokontakizun bakarra aurkeztu ahal izango du. Mikrokontakizunak originala eta argitaratu gabea izan beharko du.

2. Kategoriak

Bi kategoria ezarri dira:

- **Lehen kategoria:** Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailetako ikasleak.
- **Bigarren kategoria:** Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailetako ikasleak.

3. Gaia eta kontakizunaren hasiera

Mikrokontakizunaren gai nagusia eta nahitaezkoa **zuhaitzak** izango dira. Zuhaitzek istorioaren protagonistak izan edo kontakizunean garrantzi handia izan beharko dute.

Kontakizun guztiek honako esaldi honekin hasi beharko dute:

«**Dena zuhaitz hura landatu genuen egunean hasi zen...**»

Esaldi horretatik abiatuta, parte-hartzaile bakoitzak benetako edo irudimenezko istorio bat askatasunez garatu ahal izango du.

4. Kontakizunen ezaugarriak

Mikrokontakizunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Gehienez **250 hitz** izatea, nahitaezko hasierako esaldia barne.
- Izenburua izatea.
- Originalak eta argitaratu gabeak izatea.
- Ikasleak berak idatzitakoak izatea.
- Eskuz edo ordenagailuz idatzita aurkeztu ahal izango dira.
- Eskuz idatziz gero, guztiz irakurgarriak izan beharko dute.
- Gaztelaniaz edo euskaraz idatzi ahal izango dira.

5. Aurkezpena eta bidalketa

Ikastetxeak arduratuko dira ikasleen kontakizunak bildu eta bidaltzeaz.

Testuak **PDF formatuan eskaneatuta** bidali beharko dira honako helbide elektroniko honetara:

haritzberri@fundacion-ilundain.com

Kontakizunak bidaltzeko azken eguna **urriaren 30a** izango da, egun hori barne.

Lan bakoitzak honako datu hauek jaso beharko ditu:

- Mikrokontakizunaren izenburua.
- Ikaslearen izen-abizenak.
- Maila eta ikasgela.
- Ikastetxearen izena.
- Irakasle arduradunaren izena eta harremanetarako datuak.

6. Balorazioa

Ilundain Fundazioak eta Haritz Berri Baserri Eskolak izendatutako epaimahai batek kategoria bakoitzeko kontakizun irabazle bat aukeratuko du.

Epaimahaiak bereziki baloratuko ditu:

- Originaltasuna eta sormena.
- Zuhaitzak istorioan duen presentzia eta garrantzia.
- Natura zaintzearekin lotutako emozioak, balioak edo mezuak transmititzeko gaitasuna.
- Errespetua, berdintasuna eta konpromisoa bezalako gizarte-balioak txertatzea.
- Testua parte-hartzailearen adinera eta mailara egokitzea.

7. Sariak

Kategoria bakoitzean sari bat emango da.

Kontakizun irabazlea idatzi duen ikasleak jasoko duen arren, **saria ikasgela osoarentzat izango da.**

Irabazle diren bi ikasgelek egun berezi batez gozatu ahal izango dute **Ilundain Fundazioaren Haritz Berri Baserri Eskolan**. Bertan, ingurune naturala ezagutu eta **Bizi-Baso proiektuaren barruko zuhaitz-landaketa batean** parte hartu ahal izango dute.

Bisitaren data ikastetxe bakoitzarekin adostuko da. Instalazioetara joateko garraioa ikastetxearen kontura izango da.

8. Kontakizun irabazleen jakinarazpena

Ilundain Fundazioak epaimahaiaren erabakia jakinaraziko die saritutako ikasleen ikastetxeei.

Kontakizun irabazleak Ilundain Fundazioaren webgunean, sare sozialetan eta beste komunikazio-kanal batzuetan argitaratu ahal izango dira, dagokion baimena jaso ondoren.

